

Alicia Soto

Directora de la compañía de danza “Hojarasca”

Konpainia egoiliarra: betebeharrak eta onurak

Egoitza eredu eta mota asko dago dantzan, askotariko programa artistikoekin. Askotarikoak eta desberdinak dira ere egoitza hartzeko denborak, edo egoitzak hartzeko denborak.

Hojarasca sortu eta hasi zenetik, konpainia egoiliarra izan naiz, zeren nire ustez egoitzaren kontzeptua gune bat hartzea baino zabalagoa baita.

Eta egoitzara hurbiltzeko nire lehen arrazoa ekonomikoa izan bazen ere, geroago muntaketaren konplexutasuna eta baldintza erreal teknikoetan lan egin beharra izan ziren arrazoiak.

Nire ustez, antzokiaren bihotza da herri edo hiri baten kultur bizitzaren abiapuntua, eguneroko taupadak: eraikin bizia izan behar du antzokiak.

Antzokiak, gune eszeniko gisa, ez du bestaldean begiratzeko esertzen direnentzat izan behar; artistaren zerbitzura ere egon behar du, sortzailearen zerbitzura.

Herri txikienetan, oso garrantzitsua da konpainia egoiliarrak egotea, zeren alde batetik duintasuna ematen baitio gure lanbideari eta proiektua arrakastatsua baita publikoa erakartzeko helburu gisa. Zailtasuna sortzea lortzen da: tailerren, eskolako kanpainen, ikuskizunen estreinaldien eta abarren bidez.

Ez da erraza konpainia egoiliarra izatea; zailtasunik handiena programatzailea konbentzitzea da antzokia konpartitzeko gai izan dadin, antolakuntza handiagoa behar delako.

Eta uneko politikari arduraduna antzerki zale handia eta eskuzabala izatearen eta antzerkia herriarentzat mesedegarritzat jotzearen araberakoa da beti konpainia egoiliarra izatearen lorpena.

Eta azkenik, egoitzaren ereduak salbazioa da gure herrialdeko dantza konpainientzat, gure antzokien programazio eskasia dela-eta, zeren eta talde artistikoan eraginkortasuna ematen dion egoitzaren ordainetan landu behar baitu jardueren egitaraua.

▪ **Konpainia egoiliarra: kultur gune bat errentagarri egitea**

Hau da nire kideei askotan egin behar izan diedan galdera: Zer da zure ustez konpainia egoiliar bat? Izan ere, izugarri harritzen nau, baina egoitza bat ulertzeko modu asko daude, galderari erantzun behar dion pertsonak zer jatorri artistiko duen.

Hots, antzerkia edo dantza egiten duen.

Dantzan, eta beharbada gure izaera nomadaren ondorioz, egoitza eredu eta mota asko daude. Askotariko programa artistikoak daude, eta oso desberdinak dira egoitza lekuan –eta egoitza lekuetan– egoteko denborak.

Egoiliarra izateak gune bat okupatzea esan nahi du, hartan etengabe eta modu jarraituan egotea.

Maizter iraunkorra izatea.

▪ **Egoitza ereduak:**

a) Denboraldi baterako egoitzak, ikuskizun baten sortze prozesuek irauten duten bitartekoak. 15 egunetik eta 4 edo 5 hiletara bitartekoak dira.

b) Egoitza iraunkorrak. Konpainiek, ikuskizuna sortzeaz gain, proiektu pedagogiko paraleloa garatzen du (eskola kanpainak, dantza eta antzerki tailerrak...).

Leku fisikoa ere desberdina da. Antzoki bateko gune eszenikoaz gain, bertako entsegu aretoa eta konpainiaren beraren lokalak ere erabiltzen dira.

Horrenbestez, egoitza ez da okupazio fisiko hutsa; gehienetan, erakunde publiko batekin eta administrazioarekin –ia beti, tokiko administrazioarekin– elkarbanatzea edo harremanetan egotea.

▪ **Nire esperientzia konpainia egoiliar gisa. Zailtasun ekonomikoa**

Hojarasca sortu zenetik, hasieratik, egoitzaren kontzeptuan oinarritu naiz, baina beste modu batean. Horrek esan nahi maizterra izan naizela beti, eta gune publiko baten mendean izan naizela, horrek berekin duen guztiarekin. Lekua (Gaztela eta Leon) eta garaia (1994) kontuan harturik.

Alegia, konpainia egoiliarraren kontzeptua ez zen oso ezaguna; batzuentzat, bederen, gauza bitxia zen.

Beharbada, egoitza aukeratzeko nire lehen zioa ekonomikoa izan zen; izan ere, dantza konpainia batek entseatzeko eskakizunak handiak behar ditu. Leku handia behar da: 10 x 10 m-ko azalera, berokuntza, zurezko zorua eta 5 metroko altuerako sabaia.

Eta geroago, muntaketa berriaren konplexutasunagatik eta errealitatean lan egin beharragatik.

Lehen unean, zailtasun ekonomikoak nire hiriko antzokietara hurbildu ninduen, beraz, eta halaber, ohartu nintzen antzokiak oso gutxi erabiltzen zirela, oso gutxi amortizatuta zeudela, antzokiek oso kultur eta gizarte bizitza txikia zutela, eta batzuek oraindik ere txikia dutela.

Azken batean, uste dut antzokiak ez direla agertokia eta besaulki patio erraldoia izan behar duten eraikintzarrak; izan ere, zorte apur batekin, urtean behin soilik betetzen dira horrelako besaulki patioak.

Eta kultur jarduerak hilean behin programatzea edo, gure programazioan, kasurik hoberenetan, ostiraletik igandera programatzea, nire ustez, zarrastelkeria hutsa da.

Eta uste dut antzokiek eraikin biziak izan behar dutela, agertokira igotzen diren maizterrek okupatu behar dituztela, antzezteko lekuan bertan sortu behar baitute beren obra.

Antzokiak, gune eszeniko gisa, ez dira besaulkietan obrak ikusteko jesartzen direnentzat eraiki behar; artistaren zerbitzura egon behar dute antzokiek, sortzaileen zerbitzura.

Herri edo hiri bateko kultur bizitza antzokien bihotzean hasten da, haien eguneroko taupadetan.

Nire ustez, oso garrantzitsua da konpainia egoiliarrek egotea, jarduera oso bat garatzen dutelako, eta jarduera horrek antzerkia eta dantza sustatzen dituelako, baita artistak beraiek ere.

Herririk txikienetan, oso garrantzitsua da konpainia egoiliarrek egotea; alde batetik, gure lanbidea duin bihurtzen dutelako, eta beste batetik, herritarrek ikasi egiten dutelako lanbide honetan jarduteko zorrotasuna eta diziplina behar direla, lanbide bat dela.

Proiektuak, ikusleak erakartzeko helburuari dagokionez, arrakasta izan du; zaletasuna sortzea lortzen da: lantegien, eskola kanpainen eta estreinaldien bidez, besteak beste.

▪ **Konpainia egoiliarra izatearen zailtasuna: ordainak**

Ez da erraza konpainia egoiliarra izatea; ez administrazioak konpainiak iraunarazteko finantzazioa ematen duenean, ez gune eszenikoa okupatzen duen konpainiari prestazio bat –alegia, ordain bat– eskatzen zaionean.

Zailtasunik handiena programatzaileari antzokia elkarbanatzeko gai izan behar duela sinestaraztea da; izan ere, beharrezkoa da bi alderdiek antolamendu ahalmen eta eskuzabaltasun handiak izatea, eta zenbait bizikidetzara arau ezartzea. Izan ere, askotan, kanpotartzat hartzen da konpainia.

Eta konpainia batek egoiliarra izatea lortuko badu, beharrezkoa da, beti, unean-uneko politikari arduraduna antzerkizale handia izatea, eskuzabala izatea eta herriarentzat onuragarria dela uste izatea.

Nire esperientziaren arabera, ordain horiek desberdinak izan dira, gune eszenikoa nola erabiltzen den:

1. Egoitzak laburrak badira, 3 edo 5 hilabetekoak, antzoki batean ikuskizun bat prestatzeko eman dudan denbora, hau izan da ordaina: emanaldi bat egitea. Eta programazio egutegiko emanaldiak eta programazioko ezusteko guztiak errespetatu behar izan ditut.

Atezainaren ordutegiaren mendean izan naiz, eta horrez gain, antzokien eskakizun bati aurre egin behar diot oraindik ere: antzokiko teknikariaren gehiegizko ordainsaria ordaindu beharrari, kontuan harturik teknikari hori azpikontratatuak enpresa batekoa dela eta nire taldean teknikariak ere badaudela.

Gainera, emanaldiei buruzko publizitatea egin behar izan dut.

2. Egoitza luzeak. Gaur egun, horrelako batean nago.

Hau egin behar dut ordainez: antzokia dagoen herri osoan publizitatea egitea, urtean emanaldi bat egitea edo lantegi pedagogikoak egitea.

Urte osoan erabil dezaket antzokia, betiere, nire egutegia programazioko emanaldietara egokituta. Eta bulegoa eta biltegia ere erabil ditzaket.

ALICIA SOTO artista da, mugimendua eta espazioa lantzen eta aztertzen dituena.

Ikasketak Bartzelonako Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolan amaitu ondoren, espezializazioa egin zuen bi urtez Londresko “The Pace School” izeneko eskolan.

1992. urtean ikasle moduan gonbidatu zuten Alemaniako “Pina Bausch” eskolan (Essen), eta bertan egin zuen lan 3 urtez nazioarte mailako ospea duten maisuekin hala nola Jean Cebron, Malou Airaudu, Dominique Mercy, Lutz Förster, Jou Alegado, Alberto Corvino, Ruth Chabenet, Avelina Argüelles eta Esteban Brunat-ekin, besteak beste.

1990ean lehen koreografia profesionala aurkeztu zuen “Maratón del Mercat de las Flores” (Bartzelona) jaialdian; kritikarik onena lortu zuen. Harrezkero, Espainian zein Europako gainerako herrialdeetako hainbat jaialditan aurkeztu ditu sorkuntza-lanak.

2000. urtean, Hojarasca Danza konpainiaren zuzendaritza hartu zuen eta dantza eta antzerkia bateratzeko sorkuntza originala eta irekia garatu zuen, askotan multimedia eta teknologia berriak erabiliz.

Alicia Sotok tailer ugari egin ditu eta hainbat topaketa eta kultur anitzeko trukaketatan hartu du parte Mexikon, Hego Amerikan, Japonian, Kolonbian, etab.